

## **UDALAREN OSOKO BILKURA**

### **2017ko UZTAILAREN 20an EGINDAKO APARTEKO BATZARRALDIA**

Elkartutakoak

#### **Alkatea**

Jon Luqui Albisua, jauna (E.A.J./P.N.V.)

#### **Zinegotziak**

Igor Zubillaga Aguado, jauna (E.A.J/ P.N.V)  
Itziar Agirre Berriotxo , andrea (E.A.J/ P.N.V)  
Maialen Fidalgo Mendizabal, andrea (E.A.J/ P.N.V)  
Oihane Zabaleta Mujika, andrea (E H Bildu)  
Aitor Otegi Epelde, jauna (EH Bildu)  
Matilde Sanz García, andrea (EH Bildu)  
Fco. Javier Martin Mateo, jauna (P.S.E.-E.E)  
Natividad Nieves Medina andrea (P.S.E.-E.E)

#### **Ez Bertaratuak**

Jon Albisua Garmendia, jauna (E.A.J/ P.N.V)  
Iñaki Etxaniz Arregi, jauna (E H Bildu)  
Nerea Altolaquirre Berastegui, andrea (E H Bildu.)  
Alberto La Rosa Viedma (Irabazi)

#### **Idazkaria**

María Jose Begiristain Zabalo andrea

#### **Kontu hartzailea**

Ainhoa Olano Garmendia andrea

Urretxun bi mila eta hamazazpiko uztailaren hogeian.

Arratsaldeko zazpiak direnean, alde zurretik deitutako aparteko batzarraldia egiteko,

En Urretxu a veinte de julio de dos mil diecisiete.

Siendo las diecinueve horas se reúne en la Sala Capitular del Ayuntamiento el Pleno de la

Udalbatzarra bildu da udaletxeko batzar areto nagusian; goian agertzen diren udal-bazkideak elkartu dira.

Lehendakariak ekitaldiari hasiera eman dio, eta bere aginduz, eguneko gai-zerrendan sartutako gaiei eztabaidatzeari ekin diote

Corporación al objeto de celebrar sesión extraordinaria para la que había sido convocada y a la que asistieron los Señores Corporativos que arriba se indican.

Abierto el acto por la Presidencia y de su orden se pasó a tratar los asuntos relacionados en el Orden del Día

1.- 2016ko Kontu Orokorra: onarpena.	1.- Cuenta General 2016: aprobación.
2.- Konpromiso-kreditu modalitateko 2017-KALD-000007-00 zenbakia duen kreditu aldaketa espedientea: onarpena.	2.- Expediente modificación créditos nº 2017-KALD-000007-00 modalidad crédito de compromiso: aprobación.
3.- A.I.E. 4 Xehetasun Azterlana: behinbetiko onarpena	3.- Estudio Detalle A.I.E. 4 Ikastola: aprobación definitiva

### **1.- 2016ko Kontu Orokorra: onarpena.**

Kontuan izanik Toki Erakundeen Aurrekontua arautzen duen otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauaren 63 artikuluan ezarritakoa, hau da, toki erakundeen urteko kontuen egoera prestatzeko eta onartzeko prozedura ezartzen duela, kontu-hartzaile andreak 2016ko Kontu Orokorraren berri eman du.

Kontuan izanik jendaurrean ere azaldu dela, 2017ko maiatzaren 29an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki bidez; hori horrela eginda, ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Kontuan izanik Ogasuna eta Kontuen Batzorde Bereziak horren aldeko iritzia eman duela, gaia

### **1.- Cuenta General 2016: aprobación.**

Considerando lo dispuesto en el art. 63 de la Norma Foral 4/1991, de 26 de febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales, por el que se establece el procedimiento de elaboración y aprobación de los estados de cuentas anuales de las entidades locales, por la Sra. Interventora, se da cuenta de la Cuenta General del ejercicio presupuestario 2016 .

Resultando que tras haber efectuado la oportuna exposición al público mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 29 de mayo de 2017, no se ha producido reclamación alguna.

Habida cuenta del dictamen favorable emitido al efecto por la Comisión Hacienda y de Especial



Urretxuko udala



botoetara eramanda, eta aho batez, hauxe erabaki da:

**Bakarra.-** 2015eko ekitaldiari dagokion Aurrekontuaren Kontu Orokorra onartzea.

**2.- 2017-KALD-000007-00 kreditu aldaketarako espedientea, konpromiso-kredituaren modalitatea: onespena.**

Alkate jaunak azaldu du kreditua aldatzeko proposamen hau Pagoeta udal-igerilekua berritzeko premiaren ondorio dela; igerilekuak 1.000 €-ko aurrekontu-sail irekia zuen. Ondoren, adierazi du Legealdi Planak barnean hartzen dituela berrikuntza-lan horiek, baina, horretarako, diru-laguntzen bidezko kanpo-finantzazioa beharrezkoa dela.

Bestalde, jakinarazi du aurreproiektuak 1.000.000 €-ko gauzatze-aurrekontua aurreikusten duela eta Foru Aldundiak, 2017ko urtarrilean, kirol-ekipamenduetara zuzendutako diru-laguntzak jasotzeko deialdia egin zuela 2017-2020 aldirako; 1986. urtetik egiten du deialdi hori Foru Aldundiak, eta udalerrri honek ez du inoiz horren onurarik jaso.

Aipatutako aurreproiektu horretan oinarrituta, Pagoeta igerilekua birmoldatzeko diru-laguntza eskaera egin zela esan du, eta, foru-organok uztailaren 5ean emandako ebazpenaren bidez, 217.000 €-ko diru-laguntza eman diotela udal honi; kopuru horren % 80 aurten justifikatu behar da (2017), eta gainerakoa, % 20, alegia, 2018an.

Alkate jaunak jakinarazi du Pagoeta igerilekua 1990. urtean eraiki zela, eta azken urteetan arazo ugari sortu dituela, oso ur-kontsumo

de Cuentas se somete el asunto a votación, y por unanimidad se acuerda:

**Unico.-** Aprobar la Cuenta General del el Presupuesto correspondiente al ejercicio 2016.

**2.- Expediente modificación créditos nº 2017-KALD-000007-00 modalidad crédito de compromiso: aprobación.**

El sr. alcalde expone que esta propuesta de modificación de crédito proviene de la necesidad de remodelar la piscina municipal Pagoeta que disponía de una partida presupuestaria de carácter abierto con 1.000 €. Sigue diciendo que el Plan de Legislatura contempla esta remodelación siempre y cuando se disponga también de financiación externa vía subvenciones.

Informa que el anteproyecto contempla un presupuesto de ejecución de 1.000.000 €, y que Diputación Foral en enero de 2017 convocó una línea de subvenciones para equipamientos deportivos 2017-2020, línea que viene convocando desde el año 1986 y de la que este municipio nunca ha sido beneficiario.

Señala que se presentó la solicitud de subvención para la remodelación de la piscina Pagoeta de acuerdo al anteproyecto citado, y que mediante resolución dictada por el órgano foral el pasado 5 de julio se nos ha concedido una subvención de 217.000 €, de los cuales el 80% hay que justificar en el presente año 2017 y el 20% restante en el 2018.

El sr. alcalde sigue diciendo que la piscina Pagoeta se construyó en el año 1990, habiendo dado muchos problemas durante los últimos años



Urretxuko udala



handiak izateaz gain. Horregatik, irisgarritasunaren arloan egin beharreko zenbait konponketaz gain, igerilekuaren ontziak birmoldatzea egokitzat jo da; hala, ur kopurua murriztu egingo da, eta 1000 m<sup>3</sup>-ko edukiera izatetik 600 m<sup>3</sup>-koa izatera pasako da.

Jasotako diru-laguntzari dagokionez, eskertzekoa dela adierazi du, izan ere, lehen esan bezala, 1986. urteaz geroztik udalerrri honek ez du inolako kopururik jaso. Hala ere, gastua justifikatzeko emandako epeak oso laburrak direla adierazi du: urte honetako abenduaren 31 baino lehen justifikatu beharra dugu diru-laguntzaren % 80. Alderdi horrek dakarrena da, organo eskudunak, kasu honetan alkatetzak, dagokion proiektua onartu behar izatea lehenbailehen, eta presazko lizitazioa deitzea legez ezarritako prozeduraren bidez, hori guztia lizitazio prozesuan kontratazio mahaiak deitzeari kalterik eragin gabe.

Horregatik, diru-sarrera handiagoa zuzendu da xede horretarako aurten, 200.000 €-koa, emandako diru-laguntzaz gain, eta 400.000 € hitzartu dira hurrengo urterako, 2018rako. Horixe da, hain zuzen ere, kredituak aldatzeko proposamen honen arrazoia.

Ondoren, kontu-hartzaile andreak eman dio hitza, eta horrek adierazi du alkate jaunak aipatu duen diru-sarrera handiagoetarako kreditu-gaikuntza alkatetzaren ebazpen bidez onartu dela, eta, honako proposamen honen bitartez, konpromiso-kreditua onartu nahi dela, hots, 2018. urtean 400.000 €-ko sail bat sortzeko konpromisoa.

Halaber, kontu-hartzaile andreak egindako txostena irakurri du; txosten horren arabera,

además de consumos de agua muy elevados. Es por ello que se ha entendido conveniente remodelar los vasos de la piscina reduciendo la lámina de agua de 1000 m<sup>3</sup> a 600 m<sup>3</sup>, además de una serie de adecuaciones de accesibilidad.

Respecto a la subvención recibida señala que es de agradecer dado que, como ya ha dicho anteriormente, desde el año 1986 este municipio no ha recibido ninguna cantidad. No obstante los plazos que nos han marcado para justificar la misma son muy cortos: tenemos que justificar el importe del 80% de la subvención antes del 31 de diciembre del presente año. Este extremo conlleva que, por el órgano competente, en este caso alcaldía, se deba, cuanto antes, aprobar el oportuno proyecto y convocar licitación urgente por el procedimiento legalmente establecido, todo ello sin perjuicio de que en el proceso de licitación se convoquen las oportunas mesas de contratación. Es por ello que este año se habilita un mayor ingreso por importe de 200.000 €, esto la subvención otorgada, y se comprometen 400.000 € para el próximo año 2018, razón por la cual se propone la presente modificación de créditos.

Seguidamente da la palabra a la sra. interventora quien explica que la habilitación de créditos por mayores ingresos a la que se ha referido el sr. alcalde ha sido aprobada por resolución de alcaldía y que con la presente propuesta se trata de aprobar un crédito de compromiso, compromiso de crear una partida en 2018, por importe de 400.000 €.

Asimismo da lectura al informe emitido por la sra. interventora en el que manifiesta que dicho

aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaio espediente, zehazki, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 22. artikuluan eta Aurrekontua Betetzeko Udal Araudian zehaztutako baldintzei.

Hitz egiteko txandak hasita, Nieves andreak (PSE-EE) adierazi du kopuru handia dela, baina kontuan izan behar dugula igerilekuak 21 urte dituela eta azken urteetan konponketa-lan txiki ugari behar izan dituela; esan du konponketa orokorrago hori egiten ez bada itxi egin beharko dela.

Ondoren, adierazi du, alkate jaunak esandako moduan, 217.000 €-ko diru-laguntza jaso duela udalak, PSE-EE taldeak egindako kudeaketei esker, eta diru-laguntza hori ezin dela alferrik galdu; Denis Itxaso Kulturako diputatuari eta Alvarez kiroletako foru-zuzendariari eskertu die laguntza hori eman izana.

Zabaleta andreak (EH Bildu) jakinarazi du bere taldean gai hau sakon aztertu dutela eta, udal-igerilekuaren egoera kaskarra kontuan izanda, diru-laguntza horrek inflexio-puntua ekarri duela. Diru-laguntza horri uko egitea zaila dela esan du, baina gai honen inguruan beste datu batzuk falta zaizkiola. Ikuspegi ekonomikotik, une honetan arazorik sortuko ez duen arren, 2018. urtean egin daitezkeen beste inbertsio batzuk baldintzatuko dituela adierazi du, eta horixe dela diru-laguntza honen eragozpenik handiena. Horregatik guztiagatik, ikuspegi handiagoarekin begiratu behar zaiola eta une honetan dagoen zorra bi urtean amaituko dela kontuan izan behar dela uste dute.

expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos establecidos en el artículo 22 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales, y a la Norma municipal de Ejecución Presupuestaria.

Iniciado el turno de intervenciones la sra. Nieves (PSE-EE) expone que se trata de una cantidad importante pero que también hay que tener en cuenta que estamos ante una instalación que cuenta con 21 años que ha demandado gran cantidad de pequeños arreglos durante los últimos años, y que si no se reforma de forma más integral va verse abocada al cierre.

Sigue diciendo que, tal y como ya ha señalado el sr. alcalde, se ha recibido una subvención por importe de 217.000 € gracias a las gestiones que ha hecho el PSE-EE, subvención que no se puede desaprovechar y cuyo otorgamiento agradece tanto al diputado foral de cultura Denis Itxaso como a la directora foral de deportes sra. Álvarez.

La sra. Zabaleta (EH Bildu) indica que en su grupo han debatido mucho este asunto y conociendo la deficiente situación de la piscina municipal entienden que esta subvención ha supuesto un punto de inflexión en el asunto. Añade que es costoso renunciar a la misma pero les faltan otros datos. Indica que desde el punto de vista económico, a pesar de que en este momento no suponga un problema, hipoteca otras posibles inversiones durante el ejercicio 2018, siendo este el hándicap más grande de esta subvención. Es por ello que creen que hay que mirarla con perspectiva y teniendo en cuenta que la deuda existente finalizará en dos años.



Urretxuko udala



Igerilekuari berari dagokionez, diru-laguntza eskertzekoa dela esan du, baina ulertezina iruditzen zaio orain arte inolako laguntzarik jaso ez izana.

Alkate jaunak azaldu du 2008. urtean udal honek 6.000.000 €-ko diru-laguntza eskatu zuela igerilekuaren ingurua konpontzeko, eta, beraz, orduan ere berritzeko premia ikusiko zela.

Bestalde, ez du ahaztu nahi instalazio hori Urretxun dagoela, baina Zumarragako bizilagunei ere eskaintzen diela zerbitzua. Horrez gain, adierazi du 2016. urtean berrikuntza integrala egiteko azterlan bat abiarazi zela jada, aldagelak ere barnean hartzen zituena, baina berrikuntza faseka egin behar dela esan du, eta kontuan izanda 38.000 m<sup>3</sup> ur galtzen direla, lehenengo fase honetan igerilekuaren ontziak berritu behar direla.

Gainerako inbertsioei dagokionez, gogora ekarri du 2017. urtean hainbat jarduketa egin direla, eta aurrekontuan aurreikusitako gainerakoak ere gauzatuko direla jakinarazi du: haurren parkea estali, espaloiak, elkarteetako eskailerak...

Bestalde, esan du egia dela plan ekonomiko eta finantzario bat egitea komeni dela, eta, 2018. urteari begira, 400.000 €-ko konpromiso hori izango dela atalik garrantzitsuena, baina 2019ko ekitaldian gastua asko murriztuko dela gogorarazi du baita ere, une honetan dauden maileguak amortizatzen amaituko dutelako eta, beraz, 400.000 € gutxiago zuzenduko dituztelako horretara.

Diru-sarrerak aurreikusitakoak direla informatu du, eta gastu gehienak finkoak direla: % 25 langileentzako, % 19,3 diru-laguntzetarako... Beraz, aurrekontuak ezin du aldaketa handirik jasan. Bere iritziz, honako hau igerilekua

En relación a la propia piscina también agradece la subvención aunque le parece incomprensible no haber recibido nada hasta ahora.

El sr. alcalde expone que en el año 2008 este ayuntamiento solicitó una subvención de 6.000.000 € también para el entorno de la piscina, por lo que entiende que ya entonces se veía la necesidad de reforma.

Por otra parte no quiere olvidar que esta instalación está en Urretxu pero también da servicio a los vecinos de Zumarraga. Añade que en el año 2016 ya se inició un estudio de reforma integral que también contempla los vestuarios, pero que hay que acometer la reforma en fases, y que dado que se pierden 38.000 m<sup>3</sup> de agua, se entiende que en una primera fase hay que ejecutar la reforma de los vasos.

Respecto a posibles inversiones recuerda que este año 2017 se han hecho diferentes actuaciones e indica que se seguirán ejecutando en lo que resta de año el resto de las contempladas en el presupuesto: cubrición de parque infantil, aceras, escaleras sociedades... Señala que es cierto que es conveniente elaborar un plan económico-financiero y que lo más relevante para el próximo ejercicio 2018 va a ser este compromiso de 400.000 €, pero también informa que en el ejercicio 2019 se tendrá un gasto de 400.000 € menos debido a que estarán ya amortizados los préstamos actualmente existentes.

Informa que los ingresos se están comportando de forma satisfactoria, y que la mayoría de gastos son ya fijos: 25% personal, 19,3% subvenciones..., lo que indica que el presupuesto no puede experimentar grandes modificaciones.



Urretxuko udala



konpontzeko aukera ona da, eta gobernu-taldearen asmoa gauza “txiki” asko egitea da.

Zabaleta andrea ados agertu da alkateak esandakoarekin, eta adierazi du bere talde politikoak ulertzen duela igerilekua beharrezkoa dela eta udalak zerbitzu duina eskaini behar duela, baina eztabaida honekin batera beste batzuk ere planteatu behar direla esan du, hala nola udalerraren suspertze ekonomikoa edo zer-nolako udalerrria nahi dugun. Hurrengo bi urteetan aurrekontuak malgutasun txikia izango duela erantsi du, eta uste dute udalerraren proiektuari buruz eta Urretxuren gizarte-kohesioari buruz eztabaida egin behar dela, ez soilik hurrengo bi urteei begira, baizik eta epe luzeago bati begira, hurrengo 8-10 urteei, hain zuzen; euren ustez, UFFFtik eta diru-laguntzetatik jasotako kopuruez gain, beste diru-iturri batzuk aztertu beharko dira, esate baterako, jarduera ekonomikoa sustatuz, 2017. urtean 20.000€-ko aurrekontu-saila duena; sustapen hori mankomunitatearen eta Mobipro (Swarchenbruck) programaren bitartez garatu behar dela uste dute, horretarako nahiko profil ez badago ere; horrek, gainera, azterketa sakona eskatzen du.

Euren ustez, aztertu beharreko beste puntu bat udalerriko alde zaharraren egoerarena da, inguru horretan ez baitago batere jarduera ekonomikorik. Horregatik, igerilekuarekin batera, beste puntu horiek ere aktibatu behar direla esaten ari dira.

Alkate jaunak adierazi du errealistak izan behar dutela, eta Zabaleta andreak erantzun dio erantzun horrek alkatearen ikuspegi kontserbadorea adierazten duela; alkatea ez

Señala que para él, personalmente, esta reforma de la piscina es una obra de oportunidad, y que la intención del equipo de gobierno sigue siendo la de ejecutar muchas cosas “pequeñas”.

La sra. Zabaleta muestra su acuerdo con lo que ha expuesto el sr. alcalde, y señala que su grupo político sí entiende que la piscina es necesaria y que el ayuntamiento tiene que ofrecer un servicio digno, pero indica que lo único que plantean es que junto este asunto se tienen que plantear también otros debates, como la reactivación económica y qué modelo de municipio se desea. Añade que, efectivamente durante dos años va a haber poca flexibilidad en materia presupuestaria, pero entienden que hay que debatir sobre el proyecto de municipio y de cohesión social en Urretxu no sólo a dos años vista, sino a más largo plazo, 8-10 años, y opinan que para ello se tendrán que analizar otras fuentes de ingresos distintas al FFFM y las subvenciones, por ejemplo fomentando la actividad económica, que este año 2017 dispone de una partida presupuestaria de 20.000 € y que creen que hay que llevar adelante a través de Mancomunidad y del programa Mobipro con Swarchenbruck, aun sabiendo que es posible de que no dispongamos de perfiles para el mismo, cuestión que, no solo no quita, sino que exige su análisis.

También creen que otro punto a analizar es la situación del casco histórico que se encuentra totalmente despoblado de actividad económica. Es por ello que lo que están tratando de decir que, junto con la piscina, hay que activar también estos otros puntos.

El sr. alcalde señala que también se necesita un punto de realismo, a lo que la sra. Zabaleta le indica que esto indica el punto de vista

dago batere ados horrekin, eta diskurtso hutsak baliagarriak ez direla esan du. Horren aurrean, Zabaleta andreak erantzun dio ez direla ideia hutsak, eta proiektu zehatzak dituela, eta eztabaidarako prest daudela.

Zinegotzien txanda amaituta, eta Ogasuna eta Kontuen Batzorde Bereziak emandako diktamena kontuan izanik, gaia botoetara eramanda, aldeko botoa eman dute alkate jaunak eta Agirre (EAJ-PNV), Zubillaga (EAJ-PNV), Fidalgo (EAJ-PNV), Nieves (PSE-EE) eta Martín (PSE-EE) zinegotziek (6 boto aldeko), eta abstenitu egin dira Zabaleta (EH Bildu), Otegi (EH Bildu) eta Sanz (EH Bildu) zinegotziak (3 abstentzio); horrenbestez, honako hau erabaki da:

**Lehena.-** Proposamenean zerrendatzen den konpromiso kredituaren bidez egin beharreko 2017-KALD-000007-00 zenbakia duen kreditu aldaketarako espediente onartzea, ondoko laburpenaren arabera

conservador que el sr alcalde niega rotundamente añadiendo que los meros discursos no son válidos. Ante esto la sra. Zabaleta señala que no son solo ideas sino que tiene proyectos concretos y que muestran toda su disponibilidad para el debate.

Finalizado el turno de intervenciones y considerando el dictamen emitido por la Comisión de Hacienda y Especial de Cuentas, se somete el asunto a votación y con los votos a favor del sr. alcalde y de l@s ediles sr@s. Agirre (PNV), Zubillaga (PNV), Fidalgo (PNV), Nieves (PSE-EE) y Martín (PSE-EE) {6 votos a favor}, y las abstenciones de l@s concejales sr@s, Zabaleta (EH Bildu), Otegi (EH Bildu) y Sanz (EH Bildu) {3 abstenciones, se acuerda:

**Primero.-** Aprobar el expediente de modificación de créditos mediante crédito de compromiso, num. 2017-KALD-000007-00, que se relaciona en la propuesta formulada al respecto

**Konpromisu kredituaren proposamena. / Propuesta de crédito de compromiso**

Partida gastos futuros	Descripción	Importe
5 9000.342.30.01.2018	Ejecución obra piscina	400.000,00 €
<b>TOTAL CRÉDITOS A COMPROMETER</b>		<b>400.000,00 €</b>

**Bigarrena.-** Jendaurrean 15 egunetan ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi aurrekontu orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

**Segundo.-** Someter a información pública por el plazo de 15 días a efectos de reclamaciones. De no presentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del presupuesto general.



Aurrekontuen egonkortasunerako, finantza-iraunkortasunerako eta gastu-araurako helburuen betetze-mailari buruzko Ikuskaritzaren txostena

Kontu-hartzaile andreak jakinarazi du espediente honek bete egiten duela finantza-iraunkortasunerako helburua, baina ez dituela betetzen 2017ko aurrekontuen egonkortasunerako helburua ez eta gastu-araua ere.

Kredituak aldatzeko espedientean oinarrituta, toki-erakunde honek ez luke beteko 2017rako gastu-araua, baina aurrekontua kitatzeko unean egiaztatu beharko da arau hori bete den ala ez. Bestalde, egonkortasun-helburua ere ez du betetzen; bai, ordea, zor publikoaren helburua, eta, beraz, toki-erakunde hau plan ekonomiko eta finantzario bat onartzera behartuta egongo litzateke.

Hala ere, aurrekontuaren egonkortasun-helburua ez betetzeko arrazoia diruzaintzako soberakina erabiltzea izan denez, plan horren ordezkari ikuskatzaile txosten bat egingo da, eta horren berri emango zaio udalbatzari.

Gastu-arauari dagokionez, erakunde hau 2017. urtean defizitaren eta zor publikoaren helburuak betetzen ari dela eta aurreko ekitaldiko kitapenean aurrezki garbia eta diruzaintzako soberakina positiboak izan zirela kontuan hartuta nahiz aginduaren 3. arauan ezarritakoarekin bat etorruta, udalbatzari egindako komunikazio honek ordezkari du plan ekonomiko eta finantzarioa.

**3.- A.I.E. 4 Xehetasun Azterlana: behin betiko onarpena**

Informe de Intervención sobre cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera y regla de gasto

La sra. Interventora informa que este expediente sí cumple el objetivo de sostenibilidad financiera, sin embargo no cumple el objetivo de estabilidad presupuestaria ni la regla del gasto para 2017.

Teniendo en cuenta el expediente de modificación de créditos, esta entidad local no cumpliría la regla del gasto para 2017, pero el cumplimiento de esta regla se debe verificar a la liquidación del presupuesto. Por otra parte, tampoco cumple con el objetivo de estabilidad, aunque sí con el objetivo de deuda pública, y por lo tanto. Esta entidad local estaría obligada, en principio, a aprobar un plan económico-financiero.

Sin embargo, como el incumplimiento del objetivo de estabilidad presupuestaria se produce como consecuencia de la utilización del remanente de tesorería, dicho plan se sustituirá con un informe de intervención que será comunicado al Pleno.

En cuanto a la regla de gasto, habida cuenta de que esta entidad cumple en 2017 los objetivos de déficit y deuda pública y que en la liquidación del ejercicio anterior el ahorro neto y el remanente de tesorería resultaron positivos, de conformidad con lo establecido en la Regla 3ª de la instrucción, el plan económico-financiero puede ser y se sustituye por esta comunicación al Pleno.

**3.- Estudio Detalle A.I.E. 4 Ikastola: aprobación definitiva**



Urretxuko udala



Hirigintza Plangintza eta Kudeaketa Batzordeko lehendakari den Zubillaga jaunak azaldu du, denok dakiten bezala, fitxa urbanistiko batzuk puntualki aldatu direla, horietako bat A.I.E.4 Ikastola eremuari dagokiona delarik. Fitxa urbanistiko berria indarrean sartuta, Xehetasun-Azterlan bat idatzi behar izan da, patioko goialdeko gunearen azpian geratzen den espazio bikoitza kanpoko patioarekin konektatzeak ekarri duen bolumetria berria definitzeko.

Urretxu-Zumarraga Ikastola Koop. Elkarteak aurkeztutako Xehetasun-Azterlan hori LKSko Amaia Tirados arkitektoak idatzi du, eta 2017ko maiatzaren 22ko Alkatetzaren Ebazpen bidez eman zitzaion hasierako onespina, jendaurrean azaldu zen 20 eguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 101 zk., 2017ko maiatzaren 29koa, Berria eta Diario Vasco egunkarietan iragarkiak jarrita, eta kaltetuei jakinarazpen pertsonala eginez.

Hirigintza Plangintza eta Kudeaketa Batzordearen irizpena kontuan hartuta eta gaia bozkatu ondoren, honako erabaki hau hartu da, aho batez:

**Lehena.-** AIR 4 Ikastola Eremuko Xehetasun Azterlana, LKSko Amaia Tirados arkitektoak idatzitakoa, behin betiko izaeraz onartzea.

**Bigarrena.-** Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta egunkarietan argitaratzea, eta jabeei eta gainerako interesatuei zuzenean jakinaraztea.

**Hirugarrena.-** AIR 4 Ikastola Eremuko Xehetasun Azterlana Gipuzkoako Foru

El sr. Zubillaga, presidente de la Comisión de Planeamiento y Gestión Urbanística, expone que tal y como todos conocen se han modificado puntualmente algunas fichas urbanísticas, siendo una de ellas la correspondiente al ámbito A.I.E. 4 Ikastola. Una vez en vigor la nueva ficha urbanística se ha hecho necesario proceder a la redacción de un Estudio de Detalle para definir la nueva volumetría que supone conectar el doble espacio que queda bajo la zona elevada del patio con el propio patio exterior.

Este Estudio de Detalle, presentado por Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop. ha sido redactado por la arquitecta de LKS Amaia Tirados, fue aprobado inicialmente por Resolución de Alcaldía de 22 de mayo de 2017, sometido a información pública, por plazo de 20 días mediante anuncios publicados el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 101 de 29 de mayo de 2017, en los periódicos Berria y El Diario Vasco de 29-05-2017, y notificación personal a los afectados.

Considerando el dictamen de la Comisión de Planeamiento y Gestión Urbanística y sometido el asunto a votación, por unanimidad se acuerda:

**Primero.-** Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle Ámbito A.I.R. 4 Ikastola redactado por la arquitecta de LKS Amaia Tirados.

**Segundo.-** Publicar el acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en los diarios, con notificación personal a los propietarios y demás interesados

**Tercero.-** Remitir el Estudio de Detalle Ámbito A.I.R. 4 Ikastola, para su depósito, al registro de

Aldundiko hirigintza-plangintzako erregistrora igortzea, han gorde dezaten.

**Laugarrena.-** Alkate jaunari ahalmena ematea, erabaki hauek gauzatzeko eman beharreko xedapenak eman ditzan.

Eta beste gairik izan gabe, amaiera eman zaio batzarrari arratsaldeko zazpiak eta berrogeita hamar minutu direnean, eta horren guztiaren akta jaso da, eta bildutako guztiek sinatu dute, fede-emaile naizen honekin batera

planeamiento urbanístico de Diputación Foral de Gipuzkoa.

**Cuarto.-** Facultar al Sr. Alcalde para dictar las disposiciones necesarias en orden a la ejecución de estos acuerdos.

Y no habiendo más asuntos que tratar se da por finalizada la sesión a las diecinueve horas y cincuenta minutos, de todo lo cual se extiende la presente Acta que firman conmigo todos los asistentes, y de lo que doy fe.



Urretxuko udala

